

**(VENEZUELA)**

**PILLOTA TXAPELKETA.**—Txapelketa garaya urreratzen ari dala ta, asi dira gertutuzen pilotariak. Iñoz baño zaletasun aundia goa nabaitzen da aurten arazo ontaz, baxer ere azken aldi ontan etorri diñan pilotariakin. Oyen artian, bi Napar agertzen zaizkigu onenak bezela: Bat, Abans Baztandarra ta Altan Luzaidara bestia. Azkeneko an, orain berriro Zaragozan txapelkun izana ikasleen artian. Gezenak diotenez, Orain arte izan ditugun pilotariak larri ibilliko dira oyeikin.

Eguberri jayak ziralako edo txapelketa ontarako gertutzilagatik, pilota partidu edo batzuk izan ditugu egun oyetan. Urte berri egunean, Gernika ta Gaubekak, tanto batez irabazi zioten Altzon ta Olasagasti'ri, ta libeltzaren 4, an, Goltziaketa Patri Trompellok 22-14, Urzelai ta Yarritur.

Ill onen 18, an izango da aspaldian zaletasun geyena sortu dun partidua: Lenago esandako bi Narparrak, Urzelai ta Goltia edo Gernikaren aurka.

**TOMBOLA.**—Eguberrian ottura dan bezela, Eusko Etxeko emakumeak tombola bat gertu digute Euzkadin espetxeratutako ta ango gaxoentzat dirua biltzeko. Beti bezela, Jendiak ongi erantzun du Lolla Rousse ta bere laguntzalleak aifi biotzez gure anai beartsuari eskeintzen dioten laguntzari.

**EUSKO ALDERDI JELTZALEA.**—Orain berriro izendatutako emengo Erbeste Barrutiko batzorde burua oso goño ari da lanean bere eginkizunak al bezin ongi betetzen. Gure aberriaren barronian bere ardioraren aurka aifi kementsu lanean ari diranen deya entzunaz, asko gerra Eusko Alderdi Jeltzaleak gure aberriaren ankapiratzallearen aurka bear bezela egiteko bear dun laguntzari erantzun diogunak, ba-

ñan oraindik ez gera izan bear gurek guziak.

Oraindik ez ba zera bear bezela alderkidetu, zuzendu zaitez emengo Eusko Alderdi Jeltzalearen zuzendarari, aberriaren alde bearrez Josiak gure baño geyago egiten ari diranen deya entzunaz.

**PIZKUNDE TALDEA.**—Berriro agertu zaigu aspaldian baztertuta gure gure abesbatza. Indar zarrak astindua eta abeslari berri batzuk erantsiaz, otsailaren 13'an aurkeztu zitzaizgun Caracas irratetxian.

Ez gera irratsayo oyeikin gure abesti kutunak Venezuelako erriari erakustearren bakarrik ari, baizik baita ere, entzunleak jakin dezaten Euzkadin laerataz. Abesti aurretik edo bere tartetan, argi ta garbi adierazten ditu Saez'tar Bitor'ek gure aberriaren xeetasunak. Zeifi guran eta nola gauden esanaz, gure aberriaren askatasuna lortzeko gure eskubideetaz edo Euzkadik ludiari emandako gizon jakintsu edo ospatsutaz mintzatzen da.

Txistularien soñuak agertu ziguten lenengo aldian, ondorean abesbatzak eskeñiaz: Argizaliak zelutik, Txoru, orain oroitzen ez naizen beste eusko abesti bat eta Venezuelako beste abesti bat, denak lau abostetara. Beñ batian Loyolan eta Los Granaderosen zati bat abestu zitun Lakatza'tar Serapiñek bakarrik.

Bigarren irratsayon, Epailak 4, Pizkunde abesbatzak lau abostetara Agur Jaunak, Mendiko Negarra, Matsaren orpotik eta Los Piratas Venezuelako abestia, abestu zitun. Urresti'tar Pauliñek bere abost sendoakin Bertsolari ta Bide Onera.

Irratsayo oyeec jarraitzeko asmo ta gogoakin gauden guziak, eta abeslari guzien laguntza itxaro du Pizkunderen zuzendari dan Garate'tar Anton'ek.

**(NEW YORK)**

**"EUSKAL ETXEA":**—Euskal Etxe edo Centro Vasco barri bat egiteko erabagija artu dabe New York'eko euskaldunak.

Euskal Etxe barri ori guztijontzat toki atsegin bat ixatia gura dabe Centro Vasco'ko agintarijak; ontarako euskaldun guztijongana zuzendu dira, bakoitzak al duan moduan laguntza emateko eskatuaz.

Emengo euskaldunak ondo daki-gu zeñen biarreku dan Eusko Etxe barrija, bezaz al dogun geijona satai gaitzen Etxe ori eder—ederra ixan dedin.

**IBILTARIAK.**—Illabete batzuk Euzkadin igaro ondoren berriro geure artera etorri da abertzale zintzoa dan Iraola jauna. Ongi etorri.

—Aldi luze bat Donosti ta Bilbao'n egon eta New York'era etorri da gure adiskide ona dan Aguirre'tar Peter jauna. Ongi etorri.

—Mexico'runtz zijaola emen agurtu gendun Balautegigotia'tar Imanol jauna.

—Mexico'tik etorri-ta emen igaro dabez egun batzuk Balautegigotia'tar Pantzeska jaunak eta bere emazte Elvira andreak.

—Boise (Idaho'n bertan bizitzera joan dira Gorriño'tar Angel jauna ta bere emazte Martina andrea, euron seme Yoseba'rekin.

**EZKONTZAK.**—Altuna'tar Lucy andreañoa (Jose Altuna jaunaren alaba) Otsailaren 7'an ezkondu zan Salvatore Da Luca jaunarekin.

—Santa Maria ta Lauzirikat'ar Lucy andreañoa ikasle gazte bategaz ezkondu da.

Zorionak lau ezkonberrial.

**JAYOTZAK.**—Ordorika'tar David jaunaren emazte dan Arrien'dar Irene'k seme bat euki dau.

—Altuna'tar Jennie'k be alabatxo bat ekarri dau munoura.

—Iturraspe jaunaren emazte dan Gokoetxea'tar Margarita'k seme bat ixan dau.

Zorion guariak desiatzen dautzogu iru sendiak.

**Txanpakalore**

(Gandhi'ri gorasarre)  
Emekumeentzat

Aspaldi nuzuten egiña; ez biall, bai biall. . . Egoitza eskutuari goxo etsi edo, amabi urte otan, Ezin eten, enetxoak. Astiñaldi gogortxoaren bear, nonbait, eta ona etorri. Sortaldeko aran-lore sorta ikusgarria ta Gandhi-ren eriotz-berria batean gurera.

Gure zizallu inguruan jarrita, urrutiko abertzale aren azkena entzuten "elurte arian geldia"ri begi-begira ikusi zaituztedanontzat Tagore'n poematxoak ba-dukela, alegia, biotzondo ta or djoakizute gure baratzatxora birlandatua.

& & &

"Aizu, amatxo, txanpaka-lore biurtuko ba-nintza ni, txantzetan e?, ta zugatz orren puntaren puntan zabaldu, ta irriz urratzen aizetan zabu-zabuka, ta ostu berri gafiñan dantzatu; ni nintzazunik asmatuko ote, zuk, amatxo?" Nun aut aurra" zuk olu egingo. Ta nik nere baitan

parrari ta geldi-geldi egongo. Poliki poliki ene orritxoak idiki ta lanean zu ikusiko."

"Bustiñaldi ondoren, illea sorbaldan bera, txanpaka-itzaloan barrera ottoitz egiten duzun txokora igarotzean, lore-usai gozoa nabaituko zuk, amatxo; baiña niñandik zetorkizunik ez igarriko."

"Bazkalondoan lelean jarrita "Ramalana" irakurtzen zu ta nere zuztazaren itzala ille ta gona gafiñera. Zure idaztiaren orrian ene itzal ñimifioa egiñer, nik; irakurtzen ari zeran unetxo berberean egin ere. Semetxoaren itzala zenu-nik antz emango ote, ama?"

"Ilunabarrean kresallua esku-tan elara zu. Ta ni, bat-batean, lurrera berriz ta zure semetxo berri-ro. Ta. . . "ipua amatxo" eskatuko. "Non ibilli akit gaitotxo ori", zuk. Eta nik "ez esango amatxo".

IRA.

Donosti, 1948'garren Otsaila.

**ZABALA TA ARINO**

Burni-lana

Av. San Agustin del Sur. Urrutzikina 95855

Caracas

IBILLALDI EDERRETARAKO

**LINEA AYA**  
JONSANSORO'TAR PELLO

**AGIRRE'TAR VALENTIN'EN ETXEA**

HOTEL STA. LUCIA

RESTAURANT JAI-ALAI

Ostatu Atsegiña

Jakirik Gozoenak

Euskaldunen Artean

Euskal Erara Ipiñiak

Urrutzikina: CHelsea 3-2706

82 BANK STREET

NEW YORK, N. Y.

**ALBERT ETA LARRAÑAGA**

BURNITEGIA

AV. LOS CARMENES EL CEMENTERIO  
CARACAS, VENEZUELA